

IRAKASKUNTZA-GIDA

2017/18

Ikastegia

135 - Hezkuntza eta Kirol Fakultatea. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzi

Zikl.

Zehaztugabea

Plana

GDEPOR10 - Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua

Ikastaroa

4. maila

IRAKASGAIA

25778 - Kirol Sustapenaren eta Ongizatearen Kudeaketa Arloak

ECTS kredituak: 6

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

Irakasgai honetan, jarduera fisiko eta kirol erakundeak kudeatzeko ezinbestekoak diren ezagutzak eta baliabideak oinarritzat hartuz, herritarren jarduera fisikoa eta kirol jarduera sustatzeko asmoa duten erakundeen edo hauen ekitaldien barne egitura, funtzioak eta eskumenak ezagutzea eta interpretatzea bilatzen da. Erakundeak eta ekitaldiak, besteak beste, honakoak dira: udalak, ikastetxeak, elkartze-ehuna, kirol-ekitaldiak eta gimnasio komertzialak. Irakasgaiaren bitartez, etorkizun profesionalean kirol sustapenera eta ongizatera bideratuta dauden erakundeen kudeaketan aritzeko, ikasleak izan beharreko oinarritzko ezagutzak eta baliabideak bereganatzea lortu nahi da.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

IRAKASGAIAREN GAITASUN ESPEZIFIKOAK:

1. Kirol-kudeatzailearen funtzioak eta tresnak ezagutzak eta hauetaz baliatuz, herritarren jarduera fisikoa eta kirol jarduera sustatzeko asmoa duten erakundeen kirol-proiektu ezberdinak aztertzea: udal-kirola, elkartze-ehuna, ikastetxea, gimnasio komertzialak eta kirol-ekitaldiak. **IKASKUNTZA EMAITZAK 1** – Ikasleak udal-kirola, elkartze-ehuna, ikastetxea, gimnasio komertzialak eta kirol-ekitaldien inguruko erakundeen kudeaketa egitura analizatzen eta planifikatzen jakingo du.
2. Udalerriek, ikastetxeek, elkartze-ehunak, gimnasio komertzialek eta kirol-ekitaldiek kirol-alarrean duten barne egitura, funtzioak eta eskumenak ezagutzea. **IKASKUNTZA EMAITZAK 2** – Ikasleak Udallerri, ikastetxe, elkartze-ehun, gimnasio komertzial eta kirol-ekitaldien egitura, funtzio eta eskumenen arabera nola jardun behar den jakingo du.
3. Izendatutako kirol-erakunde hauen funtzionamendu-organo ezberdinak bereiztea. **IKASKUNTZA EMAITZAK 3** – Ikaslea izendatutako kirol-erakundeen funtzionamendu-organo ezberdinak analizatzeko gai izango da.
4. Izendatutako kirol-erakunde hauek beraien artean eta besteekiko duten erlazio-mota ezagutzea. **IKASKUNTZA EMAITZAK 4** – Ikaslea izendatutako kirol-erakundeen kudeaketan beste erakundeekiko harremana analizatzeko gai izango da eta nola jardun behar den jakingo du.
5. Beste kirol-esparru batzuetan plangintza eta kudeaketa teknikak aurrera eramatea. **IKASKUNTZA EMAITZAK 5** – Ikasleak kirol-esparru ezberdinetan kudeaketa baliabideak diseinatzen eta aplikatzen jakingo du.

ZEHARKAKO GAITASUNAK:

- G020 – Egoera berrietara egokitzeko, arazoak konpontzeko eta modu autonomoan ikasteko gaitasunak garatzea.
- G021 – Lan arloko bikaintasun eta kalitate ohiturak garatzea.

EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

1. GAIA: UDALERRIA
 - 1.1. Udala kirola antolatzen duen egitura denaren justifikazioa.
 - 1.2. Kudeaketa-organoen egitura eta funtzioak.
 - 1.3. Kudeaketa motak.
 - 1.4. Prezioen politika.
 - 1.5. Udal-kiroldegi baten eskaera-sektoreak.
 - 1.6. Instalakuntzetara sarrera-politika.
 - 1.7. Dirulaguntzen politika.
2. GAIA: IKASTETXEA
 - 1.1. Ikastetxearen rola eta eskaintza jarduera fisikoaren eta kirolaren sustapenean.
 - 1.2. Eskola Kirola.
3. GAIA: ELKARTZE-EHUNA
 - 3.1. Jarduera fisikoaren eta kirolaren sustapena elkartze-ehunaren bitartez.
 - 3.2. Elkartze-ehunaren kudeaketa eta antolaketa.
 - 3.3. Elkartze-ehunaren finantziario-sistema.
4. GAIA: KIROL-EKITALDIK
 - 4.1. Kirol-ekitaldien antolakuntza jarduera fisikoaren eta kirolaren sustapen bezala.
 - 4.2. Kirol-ekitaldi motak.

4.3. Kudeaketa eta antolaketa sistemak.

5. GAIA: GIMNASIO KOMERTZIALAK

5.1. Gimnasio komertzialak jarduera fisikoaren eta kirolaren sustapen-esparru bezala.

5.2. Gimnasioen kudeaketa eta antolaketa sistemak.

5.3. Gimnasio komertzialen eskaintza-eskaria.

METODOLOGIA

Eskola magistralen bitartez, eduki teorikoen azalpena burutuko da. Ikuspuntu ezberdinak aztertuz eta ezagutuz, hausnarketa bultzatuko da; eta hauek oinarri izanez, aplikazio praktikoa erraztuko duten kasuen azterketa edota irakurketak burutuko dira, eta baita hauekin lotutako aurkezpenak ere.

Eskola magistralei lotutako zereginak ondorengoak dira: ahozko informazioaren jarraipena, irakaslearekiko edota ikaskideekiko elkarrekintza, ahozko informazioaren ulermena eta egituraketa, edukien ikasketa.

Ikasgelako praktiketan, eduki teorikoen ezarpena burutuko da. Elkarrekintzaren bitartez praktiken, lanen edota proiektuen diseinua eta garapena burutuko da.

Ikasgelako praktikei lotutako zereginak ondorengoak dira: ahozko informazioaren jarraipena, irakaslearekiko edota ikaskideekiko elkarrekintza, ahozko informazioaren ulermena eta egituraketa, lan-praktikoaren txostenaren garapena.

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	45		15						
Ikaslearen ikasgelaz kanpoko jardueren ord.	67,5		22,5						

Legenda:

M: Magistrala

S: Minteakia

GA: Gelako d.

GL: Laborategiko d.

GO: Ordenagailuko d.

GCL: P. klinikoak

TA: Tailerra

TI: Tailer Ind.

GCA: Landa d.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio jarraituaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Praktikak (ariketak, kasuak edo buruketak) % 60
- Talde lanak (arazoen ebazpenak, proiektuen diseinuak) % 40

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

ETENGABEKO EBALUAZIOA:

- Irakasgaiko gai-zerrendarekin lotutako banakako lanen garapena: azken notaren %60 izango da.
- Irakasgaiko gai-zerrendarekin lotutako praktikak eta taldeko lanen garapena: azken notaren %40 izango da.
- Ebaluazioko atal bakoitzean, gutxienez 10etik 5 bat lortu beharko da.

Deialdiari uko egitea.

Deialdiari uko egiten dioten ikasleek «aurkezteke» kalifikazioa jasoko dute.

- Etengabeko ebaluazioaren kasuan, deialdiari uko egin nahi dioten ikasleek kasuan kasuko irakasgaiaren irakaskuntza aldia bukatu baino, gutxienez, hilabete lehenago egin beharko dute eskaria. Eskari hori idatziz aurkeztu beharko zaio irakasgaiaren ardura duen irakasleari

Ikasleak etengabeko ebaluazioari uko egiten diola jasotzen duen idatzi bat aurkeztu beharko dio irakasgaiaren ardura duen irakasleari, bederatzi asteko epean lauhileko irakasgaiaren kasuan.

AZKEN EBALUAZIOA:

- Idatzizko proba (atal teorikoa eta atal praktikoa izango ditu): notaren %100 izango da.
- Azken ebaluazioaren kasuan, azterketa egun ofizialean egin beharreko proba ez aurkezte hutsak ekarriko du automatikoki kasuan kasuko deialdiari uko egitea.

Zeharkako gaitasunak, irakasgaiaren landuak izango dira baina ez ebaluatuko.

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

EZ OHIKOA

- Irakasgaia ohiko deialdian gainditzen ez duten ikasleek, hautatutako ebaluazio sistema gorabehera, eskubidea izango dute ezohiko deialdiko azken ebaluazioko proba osatzen duten azterketa eta jardueretara aurkezteko.
- Etengabeko ebaluazioa jarraitu duten ikasleek, ikasturtean zehar eskuratutako emaitza positiboak gordetzeko aukera izango dute eta ohiko deialdiko atalean zehaztutako ebaluazio eta uko egiteko irizpideak mantenduko dira.
- Azken ebaluazio sistema aukeratu duten ikasleentzat, ohiko deialdiko ebaluazio eta uko egiteko irizpideak mantenduko dira.
- Deialdiari uko egiten dioten ikasleek "aurkezteke" kalifikazioa jasoko dute.

Zeharkako gaitasunak, irakasgaien landuak izango dira baina ez ebaluatuak.

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

E-gelaren bitartez errazten den materiala ezinbestekoa izango da klaseen jarraipena burutzeko.

BIBLIOGRAFIA

Oinarrizko bibliografia

- Ayora, D. y García, E. (2004). Organización de eventos deportivos. Barcelona, Inde.
- Delgado Lacoba, C. (2006). Las Políticas Deportivas en el Ámbito Local. Dirección y Gestión del Deporte Local. Gijón, 18, 19 y 20 de octubre. Centro Municipal de la Arena. Consejo Superior de Deporte. Federación Española de Municipios y Provincias. Disponible en http://www.munideporte.org/imagenes/documentacion/ficheros/2006112913065120061027101451femp1_carlos_delgado.pdf
- Delgado Lacoba, C. (2011). Directrices Básicas de Gestión Deportiva en el Ámbito Local. Disponible en <http://www.fagde.org/archivos/Directrices-de-Gesti%C3%B3n-DeportivaLocal.pdf>
- Federación Española De Municipios y Provincias (2000). Guía del Concejal de deportes. FEMP, Madrid.
- Federación Española De Municipios y Provincias (2002). Manual del deporte para municipios de pequeño y mediano tamaño. 3ª edición actualizada.
- FEMP (2007):La gestión deportiva local:Problemática actual y tendencias de futuro. Archivo digital <http://www.femp.es/files/566-948-archivo/LA%20GESTI%C3%93N%20DEPORTIVA%20LOCAL.pdf>
- Gallardo, L. y Jiménez, A. (2004). La gestión de los servicios deportivos municipales. Vías para la excelencia. INDE, Barcelona.
- Martín Caballero, O., Teruelo Ferreras, B., Solar Cubillas, L.V. y Villaverde Herrero, E. (2014). Observatorio del Deporte Municipal en España. Situación Actual de las Políticas Municipales de Deporte. Estudio financiado por Federación de Asociaciones de Gestores del Deporte de España (FAGDE). Presentado en el III Congreso FAGDE. Deporte: cuestión de Estado 7 y 8 de marzo de 2015 Santander, Palacio de la Magdalena
- Martínez Aguado, D. (2012). Nueva Gestión Deportiva Municipal con la Educación como Perspectiva = An educational prospective for new municipal sport management. El Ejido, Almería. Círculo Rojo. <http://www.munideporte.com/imagenes/documentacion/ficheros/0257F12E.pdf>
- Martínez-Aldama Ortúzar, I. y Solar Cubillas, L. (2004). Análisis de las tendencias en política deportiva municipal en las tres capitales de la Comunidad Autónoma Vasca a través de los presupuestos, Comunicación. I Congreso Vasco de investigación en ciencias del deporte, Vitoria.
- Martínez-Aldama Ortúzar, I. (2007). Las políticas de acceso y la tarificación de los servicios deportivos municipales. Modelos y pautas en IV Encuentros de Políticas deportivas en los municipios. Bilbao Kirolak. Bilbao.
- Martínez de Aldama Ortúzar, I. y Camps Povill, A. (2008). La externalización de los servicios deportivos municipales. Estudio de caso en Bizkaia. Gestión Deportiva, Ocio y Turismo. Apunts Educación Física y Deportes 92
- Mestre, J.A, García Sánchez, E (2003). Manual de legislación y reglamentación del deporte local. 2ª edición. FEMP, CSD, Madrid.
- Mestre, J.A, García Sánchez, E (1997). La gestión deportiva municipal, INDE, Barcelona.
- Ortega, E., Lagardera, F. Camps, A. (1985). Deporte y municipio. Deporte y educación. Barcelona.
- Sainz de Vicuña Ancín, J.M. (2010). El plan estratégico en la práctica.2ª edición. Madrid: ESIC
- Samaranch, J.A. (1986). El primer congreso internacional de deporte para todos. Revista Olímpica.
- Solar Cubillas, L. (2006). Servicio y clientes. El reglamento de servicios en Deporte, gestión y Municipio. Aspectos clave, Eudel. Bilbao.
- Teruelo, B. (2006). La financiación del deporte municipal, coste, valor y precio de los servicios en Deporte, gestión y Municipio. Aspectos clave, Eudel. Bilbao.

Gehiago sakontzeko bibliografia

- Baratti, A. (2011). Organización y gestión de la planificación deportiva municipal. Un plan activo, para una sociedad activa. Colombia Kinensis.
- Federación Española De Municipios y Provincias (1994). VIII jornadas de deporte y corporaciones locales. Marco competencial y financiación. Madrid.
- Federación Española De Municipios y Provincias (1996). Las políticas deportivas locales: evolución y futuro.
- Federación Española De Municipios y Provincias (1997). I Jornadas en diputaciones y pequeños municipios.
- Federación Española De Municipios y Provincias (1998). I Encuentro de diputados provinciales de deportes.
- Federación Española De Municipios y Provincias (1999). XI Jornadas de deporte y corporaciones locales. FEMP, Madrid.
- Martínez-Aldama Ortúzar, I. y Ortúzar Oyanguren, I (2007). Marco Jurídico del deporte y la administración local. Especial referencia a los municipios, en Deporte, gestión y municipio. Aspectos clave. Ed Grada. 2ªEd
- López López, A. y Luna-Arocas, R. (2000). Perfil del Gestor Público del Deporte en la Comunidad Valenciana. Un

Análisis Preliminar. Educación Física y Deportes (61). Gestión Deportiva, Ocio y Turismo.
Navajo, P.(2009) Planificación estratégica en organizaciones no lucrativas. Ed.Narcea
Navarro Galera, A. (2008). Indicadores y Coste de los Servicios Deportivos en la Administración Pública. Gestión Económica del Deporte Municipal. El Presupuesto y sus Controles. Junta de Andalucía, Consejería de Turismo, Comercio y Deporte, Secretaria General para el Deporte, Instituto Andaluz del Deporte, Departamento de Formación. Loja-Granada. Disponible en [http://www.munideporte.com/imagenes/documentacion/ficheros/20081203174032Navarro.p df](http://www.munideporte.com/imagenes/documentacion/ficheros/20081203174032Navarro.pdf)

Olias De Lima, B. (coordinadora) (2001). La nueva gestión pública. Pearson Educación, S.A, Madrid.
Puig, N., Martinez Del Castillo, J. (1983).

Aldizkariak

- Apunts
- Revista de Educación Física
- Lecturas de Educación Física y deportes. Revista digital. www.efdeportes.com
- Revista Corps et Culture <http://corpsetculture.revue.org>
- Perspectivas de la Educación Física.

Interneteko helbide interesgarriak

<http://www.sportsci.org/>
<http://www.sportsci.org/resource/stats/index.html>
<http://www.efdeportes.com/>
[http:// www.munideporte.com](http://www.munideporte.com)
[http:// www.femp.es](http://www.femp.es)

OHARRAK